

## B3

**Bada, nola cantadu ezpadaqui...**

Poema honetako ahapaldiek eskuizkribuan duten disposizioarekin, zaila litzateke puzzlea osatzea, poema-zatiak hiruzpalau orrialdetako hutsuneetan barreiatuta baitaude; baina noizbait norbaitek ahapaldiak zenbatu dituenek, errazagoa da poemaren hurrenkera osoa berrezartzea. Ez dakigu, haatik, ahapaldi-segida honen aurretik zegoena non galdu den eta zenbat zen (46 ahapaldi, 50 ahapaldi edo beste kopuru bat, ez baitakigu guregana iritsi den zenbatzea nork idatzi duen); baina lehenengo ahapaldian subjektua zein den zehaztu gabe izateak eta hasieran *bada* izateak argi adierazten dute zerbait galdu dela aurretik. Amaierari dagokionez, ez da ziurra poema guk ezagutzen dugun moduan amaitzen zen ala falta diren orrietan (1155, 1156, 1157, 1158) edo beste nonbait jarraitzen zuen. Baina poemaren hariak pentsarazten digu ezin zela guk ezagutzen dugun bezala amaitu.

Izan ere, hari nagusian (B3: 1-18 bertso-lerroak) dagoen argudio-ildoak (musikaren bidez dena lortu daitekeela) eten egin da, horren euskarri (eta apaingarri) gisa *exemplum* bat (B3: 19 bertso-lerrotik aurrera) aurkezteko: aita zahar bat maitemindurik dago, eta, dontzeilarengana hurbiltzeko, seme gazteari eskatzen dio bere ordezkantatzeko dama maitatuari. Dontzeilaren aurrean, bihuelarekin, seme gazteak aita zaharraren ordezkabestu duen kantua dator gero (B3: 48 bertso-lerrotik aurrera), baina ez du kontatzen zer gertatu zitzaion (zer *apuka ekion*, B3: 20ko hitzen arabera) maitale zaharrari. Susma genezake, dena den, *turpe senilis amor* topikoak agintzen duen moduan, barregarri geratuko zela aita (agian neska semearekin maiteminduko zelako edo). Edozein kasutan ere, ez dakigu aita-semeen pasadizoa zelan amaitu zen, eta musikaren garrantziaren hari nagusia ere zintzilik geratzen da.

Metrikari dagokionez, B2, B3, B4, B15 eta B17 poemetan bezala, ahapaldiak tertzetokoendekasilaboak dira, -AA, -BB, -CC, -DD... errimarekin.

<1151v>     [...]

51

Bada, nola cantadu ezpadaqui,  
edo cer cantadu ezpadauco,  
eztau musicoac inor benciduco.

52

Ascoc ençuten dau, nic probadu dot:

polseac<sup>1</sup> ez ebena enlazadu<sup>2</sup> 5  
 aoac<sup>3</sup> eguiala alcançadu.<sup>4</sup>

53

Esaçu: Cegaiti, dançuanean  
 jaio barri danac cantaetea,  
 loac bencicen dau inocentea?

<1154r>

54

Arçaiten<sup>5</sup> dau ençunaz descansua, 10  
 cerren arimaetan claramente  
 dago musiquea beti presente.

55

Bada, sei<sup>6</sup> batec arçaiten badau  
 cantu simple batez aynbat descansu,  
 cerren<sup>7</sup> ez gazteac baldin badançu? 15

56

Esan badaguiçu,<sup>8</sup> ezta faltaco  
 (neurc<sup>9</sup> jaquin ez arren,<sup>10</sup> badogu diru)<sup>11</sup>

<sup>1</sup> *polseac*: Hemen *polsea* diruaren metonimia gisa dago.

<sup>2</sup> *enlazadu*: Hemengo ohar paleografikoa esanguratsua da, hurrengo lerroa idazten hasteak (lerro-jauziak) esan nahi baitu seguru asko beste nonbaitetik kopiatzen ari zela.

<sup>3</sup> *aoac*: Hemen *aoa* kantuaren ordezeko elementu metonimikoa da.

<sup>4</sup> *eguiala alcançadu*: ‘lortu zuela’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>5</sup> *Arçaiten*: ‘hartzen’.

<sup>6</sup> *sei*: ‘sein, ume’; halakoetan Lazarragak *-n* gabeko formak erabiltzen ditu beti: *arçai* (*passim*), *seychoa* (A25: 53), *sei* (B3: 13, B21: 62), *ipuiçarric* (A23: 6), *ipui* (B2: 2), *array* (A25: 53) eta *arraitan* B2: 12). Landuccik ere *-n* gabeko formak bildu zituen: “ovejero, pastor, *arçaya*”; “niño, *segi mutila*”; “peçe, pescado, *arraya*”.

<sup>7</sup> *cerren*: ‘zergatik’; galdetzailera da hemen. Behin baino gehiagotan aurkitu dugu testuan: A3: 24, A9: 13, A25: 30 eta B3: 15.

<sup>8</sup> *Esan badaguiçu*: ‘esaten baduzu, eskatzen baduzu’.

<sup>9</sup> *neurc*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrea.

<sup>10</sup> *jaquin ez arren*: Hain zuzen, kantatzen jakin ez arren.

juglare pare bat nogaz conplidu.<sup>12</sup>

57

Apucaduco<sup>13</sup> jaçu bein barriz,<sup>14</sup>

alquilacen baçabilç<sup>15</sup> lagun ona,

20

beste bati apuca equiona.<sup>16</sup>

58

Guiçon bat ebilen utra<sup>17</sup> galduric

donzella eder baten servietan,<sup>18</sup>

ceyñac amorez eben penaetan.<sup>19</sup>

<sup>11</sup> *badogu diru*: ‘badugu dirua, badaukagu dirua’; objektu funtzioan dagoen izena bere forma mugagabearen dugu hemen (*diru*). Mugagabearen erabilera arkaiko hau, izen zenbakaitz edo interpretazio pluraleko zenbakarriekin azaleratzen dena, ekialdeko hizkeretan da bizirik egun; tradizioan, *Inzaur duenak jateko, aurkit diro harri hausteko* (Oih. *Prov.* 279) bezalakoak ditugu, eta egungo erabileran “badu indar” bezalakoak. Badirudi, Lazarraga lekuko, XVI. mendean hedadura handiagoa zuela ezaugarri honek. Eskuizkribuan gutxienez halako lau aurkitu ditugu: *Romeria bat eguiteco*, / *jauna, daucat nic gogo* (AL: 1147r), *neurc jaquin ez arren, badogu diru* (B3: 17), “*Ene semea*”, *baesadan*, / “*artu eguiçu esporçu*” (B16: 141-142) eta baldintzazkoa den *Coplariç ondo ordenaet[an / **abilidade** badoçu* (B12: 37-38).

Hemen *ba-* horrek baiezkotasuna markatzen du.

<sup>12</sup> *juglare pare bat nogaz conplidu*: ‘juglare pare bat zeinen bidez konplitu’; alegia, juglare edo koplariet egingo dute, diruaren truke, berak egiten ez dakiena: kantatu.

*juglare*: ‘koplari’.

*conplidu*: Testuko euskarazko *conpli-* argi bakarra da. Beste behin aurkitu dugu, baina gaztelaniaz (*compiendo* A20: 12), eta beste behin orria erdiapurtuta dagoen lekuan (B4: 1). Gainerakoetan *cunpli-* erabiltzen da beti.

<sup>13</sup> *Apucaduco*: ‘gertatuko’; cf. *OEH*, s.v. *apukatu*: “Suceder, acontecer. "Acaecer" Lcc y Lar *Sup.* "Acaecimiento, apukaitea" Lcc. *Ez dauko Peru Garciak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik, / Zeruetako mandatuia izanik, / Andrariok ala kunpli jatorik* (V, s. XV). TAV 3.1.5”.

<sup>14</sup> *bein barriz*: ‘berriro, beste behin’.

<sup>15</sup> *alquilacen baçabilç*: ‘alokatzen bazabiltza, kontratatzen bazabiltza’; adibide honetan, “aditz-izena inesiboan + *ibili*” perifrasiak ekintza errepikakorra dela zehazten du. Erabilera horren lehenbiziko lekukotasuna dugu, eta bigarrena Landuccirena da (“Demandador, *Escayten dabilena*”). Azpimarratu dezagun delako perifrasiak, maiztasunaren ñabarduraz gain, progresibotasuna ere adieraz dezakeela Lazarragaren testuan: *Traidore asac / ondo disimuladuric, / afariori aurquieten / baebilen solicatoric* (A29: 37-40).

<sup>16</sup> *apuca equiona*: ‘gertatu zitzaiona’; aoristoa edo iraganaldi zahar burutua.

<sup>17</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>18</sup> *baten servietan*: ‘bat zerbitzen’; *baten*, hemen, TO-GEN deiturikoa da, hots, *servietan* aditz iragankorren objektua, genitiboan.

59

Urte bat eta bi, bost eta amar 25  
 castadu eguian<sup>20</sup> desdichaduac,  
 beti bere minaz fatigaduac.

60

Guiçon onec seme bat baceducan<sup>21</sup>  
 cantalari guztiz gracioso,  
 gazte lindo cortes curiosoa. 30

61

Baeguion ayteac erregutu<sup>22</sup>  
 gau baten arren lagun leguiola,<sup>23</sup>

<sup>19</sup> *amorez eben penaetan*: ‘maitasunez sufritzen zuen’; baina hemen gaztelaniazko *penaba de amor* edo halako baten itzulpena da, eta amodio kortesak ezarritako arau eta eginbeharren barruan ulertu behar da, goiko lerroko *zerbitzea* bezala.

<sup>20</sup> *castadu eguian*: ‘gastatu zuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Landuccik ahostunarekin hasten den forma dakar (‘estragar, gastar, *gastadu*’). *OEH*ren arabera (s.v. *gastatu*), bizkaieraz eta Añibarrenean aurkitzen dira ahoskabeaz hasten diren formak (*kasta*-).

<sup>21</sup> *baceducan*: ‘bazeukan’; adizki honek bi berezitasun aipagarri ditu. Lehenik, bere erroko *-d-*a gordetzen du; gisa horretako formek maiztasun handiagoa dute B testuan (*neducala* B21: 8, B21: 69; *baneducan* B21: 19, *neducan* B21: 32, *baceducan* B3: 28, B21: 65), A testuan baino (*daducaçun* A5: 24, *daducat* A10: 10); bizkitartean, herskari ahostuna askotan erortzen da B testuan ere: *dauco* (B3: 2), *daucadan* (B9: 17), *leucala* (B12: 45, A29: 25), *neucala* (B21: 5), *neucana* (B21: 35), *euacan* (A29: 29, 92). Bigarrenik, guztiz aipagarria da adizki honek *z-* aurrizkia gordetzea, iraganeko 3. pertsonakoa izanik; ikusi baita *ceban* (B33: 15). A testuan, 3. pertsonako adizkiek ez dute aurrizkirik hartzen iraganean (*euacan* AL: 1141r, 1142r,v, 1143r...), eta *z-* aurrizkidun formak 2. pertsonakoak dira (*ceucala* A26: 96, 98; *ceucan* A26: 106); gainera, B testuan ere *euacan* bi aldiz biltzen da (A29: 29, 92). Bestalde, *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko soila da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen; hala da poema honetako B3: 28, B3: 31, B3: 34, B3: 37 eta B3: 40 lerroetan.

<sup>22</sup> *Baeguion ayteac erregutu*: ‘aitak erregutu zion’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. *ayteac*: *Aita* eta *ama* hitzek izen berezi gisa funtzionatzen dute gehienetan tradizioan; hartara, ez dute artikulurik hartzen. Lazarragaren eskuizkribuan, *aita* edo *ama* narrazio-hitza duenarena barik beste norbaitena baldin bada (hots, 1. pertsonarena ez bada), artikulurekin agertzen da: *aytea* (B3: 38), *bere aytea* (B3: 47), *ayteac* (B3: 31, B3: 40), *aytearen* (B3: 39); *amea* (A26: 14), *ameac* (A26: 30). Poema honetan, ikusten denez, bost aldiz aurkitu dugu *aytea*-.

<sup>23</sup> *lagun leguiola*: ‘lagun egin ziezaiola, lagun egiteko’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiola contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (AL:

cerren aseguin andi leyola.<sup>24</sup>

62

Semeac baeson:<sup>25</sup> “Ni[c]<sup>26</sup> aseguin dot,

ayta, eguin<sup>27</sup> çure mandamentua,

35

cerren ori da ene contentua”.

63

Bajoacen,<sup>28</sup> bada, gau illun baten,

---

1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>24</sup> *aseguin andi leyola*: ‘atsegin handia egingo liokeela’; *leyola* adizkia hirupertsonala (hark-hari-hura) eta hipotetikokoa da. Haren azpian bi erro izan litezke: \*i(n) erroa (‘eman’ esanahia duena) edo *egin*. Lehen aditzaren alde egitearen arrazoi nagusia litzateke *atsegin eman* lokuzioa *atsegin egin* baino arruntagoa dela. Bizkitartean, hipotetikoko formek izan ohi duten *-ke* atzizkia falta zaio adizkiari, eta badakigu hain zuzen *egin* salbuespena dela horretan, gehienetan atzizki gehigarririk gabe agertzen zaigulako hipotetikoan, potentzian eta geroaldian (*munduan direan riqueza guztiac emun baleustae bere, ezin gueiago artu ney* (AL: 1147v), *culpa andia eçarri leydae, / eyça galdu banegui* (A7: 95-96), *Oy eseguino lagun deychut, / badoçu borondateric* (A7: 111-112). Hortaz, pentsatu behar da *leyola* adizkiak *egin* erroa duela.

Bestalde, objektu funtzioan dugu hemen izen batez eta adjektibo batez osatutako sintagma mugagabea (*aseguin andi*). XVII. mendean ez da erraza horrelako sintagmak artikulurik gabe aurkitzea, baina XVI. mendean oraindik badira halakoak, izen zenbakaitzekin bakarrik, dirudienez: *Eta gaizqui eguitiaz oguen handi dudala* (Etxepare I, 185) eta *Populu ilhumbean cetzanac argui handi ikussi ukan du* (Leizarraga, Mat. 4, 16). Lazarragaren hau horiekin batean sailkatu beharra dago, darabilen hizkuntza arkaikoaren adierazgarri. Eskuizkribuan ez dugu pareko adibiderik aurkitu: *atsegin handia* sintagma maiz agertzen da, artikularekin, beharbada *aseguin andi leyola* ez bezala aspektu burutuko perpausak; ikusi, adibidez, *aseguin andia artu eben* (AL: 1142r).

<sup>25</sup> *baeson*: ‘esan zion’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa. Honek eta B3: 40koak Andramendiko idazkietako beste hura gogorarazten dute: *baesoan bere naguçari legues* (TAV, 158-160). Sail honetako hainbat aditz dira Lazarragaren eskuizkribuan: *baesadan* (A25: 11, B16: 141), *baeson* (B3: 34, B3: 40), *nesonean* (B16: 136), *esan* (B21: 76).

<sup>26</sup> *Ni[c]*: Ergatibo-faltari dagokionez, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenean (B30: 22).

<sup>27</sup> *aseguin dot, / ayta, eguin*: Eskuizkribuan *aseguin artu* erabili du gehienetan, eta ez dago beste “atsegin dot -tu / -tzea” egiturarik, honekin konparatzeko; hemen, partizipioarekin osatu du “*atseguin dot eguin* = atsegin dot egitea” egitura (“nahi dut egin” egituraren antzera). Honen antzekoa da Mikoletaren *Zein soiñeko atsegin dau imini zeure mesede orek?* (apud OEH, s.v. *atsegin izan*).

aytea ta seme,<sup>29</sup> biac batera,  
aytearen bioça coplacera.<sup>30</sup>

64

Baeson ayteac: “Ene semea, 40  
neuri baño oba derechudana,<sup>31</sup>  
ebenche<sup>32</sup> vici da ene laztana.

<1153v>

65

Bada, bear doçu, dagoan guero<sup>33</sup>

<sup>28</sup> *Bajoacen*: ‘joan ziren’; *joan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>29</sup> *aytea ta seme*: Testuan ez dugu “mugatua *eta* mugagabea” egitura honen beste adibiderik aurkitu. Ikusi, hala ere, *Bertso bizkaitarrak* (11d): *arcabuza ta mosquete*.

<sup>30</sup> *bioça coplacera*: ‘aitaren bihotzari koplak kantatzera, aitaren maiteari koplak kantatzera’; cf. *OEH* s.v. *koplatu*: “**koplatu** (SP, H), **koblatu** (S ap. Lrq; Chaho, H), **kopleatu** (Lar), **koplaatu**. *Tr.* Atestiguado ya en Etcheberri de Ziburu, no vuelve a encontrarse en los textos hasta mediados del s. XVIII. A partir de esta época se documenta en algunos pocos autores tanto al Norte como al Sur. (Aux. trans. bipersonal, con complemento referido a la persona sobre quien se canta o a quien van dirigidos los versos). Cantar en verso; entonar coplas”.

<sup>31</sup> *neuri baño oba derechudana*: ‘neure buruari baino gehiago onirizten dizudana, neure burua baino gehiago maite zaitudana’; *on erechi* aditzaren eratorria da, konparazioan (*on* > *oba*); cf. *OEH*, s.v. *hobe*: “HOBE IRITZI. **a**) Amar más. Cf. **oniritzi**. ★ *Simon Ionaren semeá, hauk baino hobe dariztak?* Lç Io 21, 15 (He, TB, Dv, Ker, IBk *gehiago maite izan*, LE *yago maite izan*, Leon, Ol e IBe *maiteago izan*). *Ahaidei baino Kristi hobe eritziteko*. Lç Mt 10, tít.”; horren moduan eratuak dira Leizarragaren *hobe erizle* (Lç 2 Tim 3, 4) eta Azpeitiako 1622ko gutunetako *onegi deritzu* (*ConTAV* 5.2.9, 126). Bestalde, hemen *neuri* dakarren arren, eskuizkribuko beste pasarte batzuetan behin baino gehiagotan aurkitu dugu *neure buru-* (A7: 23, A24: 169, B16: 23, B21: 19) eta *ceure buru-* (AL: 1152v).

<sup>32</sup> *ebenche*: ‘hementxe’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: **1**) Txikigarria (*-xe* = *-txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxe* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxeau* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59), *conquistaxeau* (B11: 13 oh. pal.) eta beharbada *Peru Errochec* (A27: 31; ik. lerro horretako oharra). **2**) Izenondo eta aditzondoan intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixego* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixego* (A10: 59). **3**) Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben* / *arean*-ekin): *bercheac* (A7: 77, A29: 62), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>33</sup> *dagoan guero*: ‘baitago, dagoenez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azguero* egiturak erabiltzen ditu. Eskuizkribuan ugari agertzen da “aditza + *-an gero*” egitura, instrumentalik gabe: *medecinea çu çarean guero* (AL: 1152v), *Abisaetan çaitudan guero* (A10: 71), *ez dodan guero culparic* (A16: 36), *a liçan guero medicua* (A21: 9), *Claramente dacustan guero* (A24: 145), *dagoan guero / gauaro au illun* (B3: 43-44).

gauaro<sup>34</sup> au illun, fresco ta oça,  
dulcero copladu ene bioça”. 45

66

Tenplacen<sup>35</sup> asi çan biguelea,<sup>36</sup>  
contentaetarren<sup>37</sup> bere aytea,  
esanik: “Ay, Jesus, ene coitea!”<sup>38</sup>

### Comiença la música

m.1

Udabarri guztiz aleguerea,  
mayaceco lora ederraena, 50  
ce indaçu<sup>39</sup> beti oneinbat<sup>40</sup> pena.

<1154r>

m.2

Gau illun onetan eguiçu argui,  
irargui<sup>41</sup> çuria eta ederra.

<sup>34</sup> *gauaro*: ‘gaugiro’; *OEhn XX*. mendeko adibideak bakarrik agertzen dira.

<sup>35</sup> *Tenplacen*: ‘(musika-tresna, hots, bihuela) gozatzen’.

<sup>36</sup> *biguelea*: ‘bihuela’; irakur bedi *biguelea*, -u- eta guzti. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan. Cf. AL: 1139r, AL: 1140v, AL: 1141v, AL: 1143v, A24: 18, A25: 18 eta B3: 46.

Lazarragaren eskuizkribuan, eta batez ere artzain-liburuan, bihuela, harpa, zanpoina eta arrabita aipatzen dira, denak ere oso musika-tresna ohikoak gaztelaniazko artzain-liburuetan.

<sup>37</sup> *contentaetarren*: ‘kontentatzearren, kontentatzeagatik’; -arren atzizkiak hiru aldaera ditu eskuizkribuan, -gatik atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: -tearren, -etarren eta -t(z)erren. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contentaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaiterren* (AL: 1146r), *alabacerren* (A6: 41), *iracasterren* (A14: 47), *servicerren* (A14: 115), *ebilterren* (B16: 120). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, -gatik atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B20: 14), *dirurren* (B15: 60).

<sup>38</sup> *coitea*: ‘nahigabea’.

<sup>39</sup> *ce indaçu*: ‘ez iezadazu eman’; \*-in- erro zaharreko adizkia.

<sup>40</sup> *oneinbat*: ‘honenbat, honenbeste’; hiru graduetak erakusleetatik eratorritako formak aurkitu ditugu eskuizkribuan, batzuetan monoptongaturik eta beste batzuetan monoptongatu gabe: *oneinbat/oninbat*, *orrinbat*, *aynbat/ainbat*. Cf. *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbategaz* (B2: 7, B5: 87), *oneinbatenaz* (A24: 9), baina *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); *orrinbat* (A26: 70); eta *ainbat/aynbat* (*passim*); monoptongazio horien antzekoa da orobat *cinbat* (A26:79).

Rendiduric nago, ce beguit guerra.<sup>42</sup>

m.3

Dacusun azquero<sup>43</sup> ene negarroç, 55  
ene laztan maite bioz-gogorra,  
nola çara nigaz mutu ta gorra?

m.4

Cer irabazten doçu ni ilagaz?<sup>44</sup>  
Edo cer ideraiten<sup>45</sup> ancituaz?<sup>46</sup>  
Edo cer galçaiten<sup>47</sup> ni osatuaz? 60

<1153v>

m.5

Merecidu ezpadot ecer bere  
neure partez, cerren naxan pobrea,  
çureti<sup>48</sup> bay, cerren naxan çurea.

<sup>41</sup> *irargui*: ‘ilargi’; *irargui* forma bi aldiz agertzen da eskuizkribuan (A17: 26 eta B3: 53); forma hori berori erabili du Landuccik ere: “luna, *yrarrguia*”.

<sup>42</sup> *ce beguit guerra*: ‘ez biezat (berorrek) gerra egin’; ilargiari berorika ari zaio, nahiz eta bi lerro gorago *eguiçu argui* esan duen. Gauza bera gertatzen da beste hiru poematan, baina poetak damari hitz egiten diolarik: A7: 119, A16: 35 eta A23: 37; eta beste behin dama poetari mintzatzen zaiola: A7: 28 eta hh.

<sup>43</sup> *Dacusun azquero*: ‘ikusten baitituzu, ikusten dituzunez’; irakur bedi *dakutsun*. Bestalde, *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

<sup>44</sup> *ilagaz*: ‘hiltzearekin’; cf. honen antzeko erabilera: *ez çatean miracuru an ila* (AL: 1143r), *Ene laztana, ni ilagaz / çuc probechuric badoçu, / ori guerrico dagueau, eta / bioceraño indaçu* (AL: 1144v) eta *ez çatean asco an ila* (AL: 1147v).

<sup>45</sup> *ideraiten*: ‘edireten, aurkitzen’; cf. *edirayten* eta, tatxaturik, *ideraiten* (A17: 49). Cf. *OEH*, s.v. *ediren*: “En cuanto al sust. verbal, entre los vizcaínos, frente a los más frecuentes *idorote*, *idorotze*, son de destacar las formas *edaraitte* e *ideraite* en *RS*, *idaraitte* en Micoleta, Capanaga, Urquizu y Arzadun 38 (todos ellos emplean *idoro*), *idarate* en *ConTAV* 5.2.11, y *eridaite* en F.J. de Zumarraga”.

<sup>46</sup> *ancituaz*: ‘ahaztearekin, ahaztearekin’. Eskuizkribuan, *ancitu-* (AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v bis, A7: 12, A17: 23, B3: 59), *anci jaquinic* (AL: 1142v, AL: 1145v) eta *ancietea* (A24: 134, A24: 144) formak agertzen dira. *OEHn* ez dago forma hauen lekukotasunik mendebaldean, ez bada Azkuerenetik harturiko “*antzitu* V-arr”. Cf. *OEH*, s.v. *ahaztu*: “El participio en V ant parece ser *aztu* con *a* nasal, escrita normalmente *aztu* y una vez (*RS* 156) *anztu*. Respecto al sust. vbal. ines., Lcc *azketan erreza* s.v. “olvidadizo” y Mic *ta aztuten badozu / eztozu ondo eiten* (TAV 3.1.27)”.

<sup>47</sup> *galçaiten*: ‘galtzen’.

<sup>48</sup> *çureti*: ‘zure partetik’.



## m.6

Beguiratu бага çuc ni nor naxan,  
 salvo<sup>49</sup> çu ceurori nungo<sup>50</sup> çarean,<sup>51</sup> 65  
 nidocaçu<sup>52</sup> nagoan penarean.<sup>53</sup>

## m.7

Nic eztot galduco esperancea;  
 alferric içango da curelago,  
 naiz beaçã beguit,<sup>54</sup> naiz alago.<sup>55</sup>

<sup>49</sup> *salvo*: ‘baizik (eta)’; eskuizkribuan bost bider agertzen da *salvo* hitza, eta horietarik lautan ‘baizik (eta)’ esan nahi du. *DAutek* ez du adiera hori bildu gaztelaniaz, ezta *OEhk* euskaraz ere. Gainera, behin euskarazko *baxe* kidearekin batera agertzen da: *ez eben gura inorc bervaric leguion, salvo bacoctic egon baxe* (AL: 1143r). Beste hiru agerraldi hauek ere ‘baizik (eta)’ adiera dute: *Beguiratu бага çuc ni nor naxan, / salvo çu ceurori nungo çarean* (B3: 64-65), *Ni ez nagoçu esque fiaduric / ez urregorria ez laborea, / salvo çor deustaçun amorea* (B3: 73-75), *Çuretaco nic daucadan / guztia / ezta mincor, salvo / ezti-ertzia* (B9: 17-20). Azkenik, bosgarren agerraldian ‘salbu, izan ezik’ adiera ohikoagoa dugu: *ez deraustae besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan* (B20: 71-72).

<sup>50</sup> *nungo*: Bost aldiz ageri da eskuizkribuan *non* galdetzaila leku-genitibo kasuarekin, funtzio predikatiboan; horietako lautan artikulurik gabe: *nungo direan esaten dave* (A1: 15), *Beguiratu бага çuc ni nor naxan, / salvo çu ceurori nungo çarean* (B3: 64-65), *Nungo çarean esadaçu* (B16: 31), *çu nungo çarean, ni bere angó* (B20: 19). Artikuluarekin behin ageri da, aditzaren ondotik den bakarrean: *Çu baçarade serbietan / jaquiten naxan nungoa* (B16: 91-92). Artikulurik gabeko erabilera hau gaur egun ekialdean baizik ez da entzuten. Funtzio predikatiboan beste hirutan baizik ez ditugu aurkitu *-ko / -go* leku-genitibodun sintagmak: *çu nungo çarean, ni bere angó* (B20: 19) artikulugabea, baina *ni banax Arabacoa* (B16: 95) eta *edoceynec gura leuque / angoa bere suyña* (B34: 3-4); berriz ere, forma artikuludunak perpausaren elementuen ordena hurrenkera kanonikotik aldentzen denean agertzen dira.

<sup>51</sup> *çarean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatueta ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doean* (RS), *daroa + -an > daroanean* (VJ) (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroeala* (B16: 16), *eroeanari* (A29: 74), eta *-ea- > -ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitezen Landuccic aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondoriorik ateratzea, baina bada adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, aurrera doana”).

<sup>52</sup> *nidocaçu*: ‘idoki nazazu, atera nazazu’; *idoki* aditzaren agintera trinkoa. Eskuizkribuan bi aldiz aurkitu dugu aditz hau: *oy neure bioz amorosoau / idogui cidan bertati* (A14: 23-24) eta *nidocaçu nagoan penarean* (B3: 66).

<sup>53</sup> *penarean*: ‘penatik, atsekabetik’.

## m.8

Edo nafiñçu<sup>56</sup> barrez seculaco, 70  
 edo çuc indaçu bici tristea,  
 çuregan dan azquero<sup>57</sup> emaytea.

## m.9

Ni ez nagoçu<sup>58</sup> esque fiaduric<sup>59</sup>  
 ez urregorria ez laborea,<sup>60</sup>  
 salvo çor deustaçun amorea. 75

<sup>54</sup> *naiz beaça beguit*: ‘nahiz mehatxu egin biezat, nahiz mehatxu egin’; ikusi Lcc “amenazar, *beaça eguina*”. Perpaus kontzesiboaren egiturari dagokionez, cf. *OEH*, s.v. *nahiz*: “Se documentan además cinco ejs. de imperativo en *Refranes y Sentencias*, Etcheberri de Ziburu, Oihenart, Iturriaga y Orixe respectivamente”. Nolanahi ere den, *OEHk* berak beste adibide bat ematen du: “Cuando se puede sufrir la cosa, pero el modo o otros adjuntos se hacen muy pesados, se suele decir: *Naiz bero bego, goibel balego* (AN)” Aq p. 63”.

<sup>55</sup> *alago*: ‘balaku, lausengu, losintxa’; alegia, “nahiz mehatxu egin, nahiz balaku egin”.

<sup>56</sup> *nafiñçu*: ‘ipin nazazu’; *ipini* aditzaren agintera trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B16: 34), *ce nafiñçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafiñçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B5: 83).

Gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *nançuçu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *ce nafiñçu* (A17: 60), *nafiñçu* (B3: 70), *nacusu* (B21: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketan* ([An]dra urena *Butroecoa nançuçu*, *Butr* A,6), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu*, *Poes.* XXIV, 5).

<sup>57</sup> *dan azquero*: ‘baita, denez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

<sup>58</sup> *nagoçu*: ‘nagokizu’; irakur bedi *nagozu*, txistukari frikariarekin (eta ez *\*nagotzu*, afrikatuarekin). Eskuizkribuan sei aldiz aurkitu dugu *nagoçu*- (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B20: 24) eta behin *egon* aditzaren NOR-NORI forma trinkoen sail honetako *gagoçu* (AL: 1147v). *Arrasateko Erreketan* (TAV 3.1.7) ere badago aditz hau: *Çaurietan curadu eta, / ama, nagoçu oera*.

<sup>59</sup> *fiaduric*: ‘mailegaturik, maileguan’; cf. *OEH*, s.v. *fidatu* 2: “Fiar, encomendar. [...] *Ea engañurik egin daben erostean [...] edo saldu daben fiadurik gorago zeinda pagua ordu presentean eginik <egonik>*. “Más al fiado que al contado”. Cap 109”.

<sup>60</sup> *laborea*: ‘uzta’; cf. *OEH*, s.v. *labore* 2: “Cosecha; cereal, grano”.

## m.10

Ene araguioc icara dabilz;<sup>61</sup>  
 ainbat sartu jate<sup>62</sup> çure bildur[ra],  
 berechat<sup>63</sup> naxala gaxto lap[urra].

&lt;1154v&gt;

## m.11

Beguioc irecaçu<sup>64</sup> guchi baten,  
 eta inca eçaçu orrerean<sup>65</sup>  
 ceure sierbo onen<sup>66</sup> biocean,

80

## m.12

cegaiti dacusun<sup>67</sup> nola dagoan

<sup>61</sup> *Ene araguioc icara dabilz*: Formula ezaguna da, batez ere balada zaharretan: cf. Peru Abendañokoren kanta (c. 1443; TAV 3.1.6.): *Jaun Peru Abendañokok esala*: / *Oñetako lurrau jabilt ikara*, / *Gorputzeko lau aragiok berala*, edo Martin Bañezen eresia (c. 1464; TAV 3.1.9): *Oñetaco lurrau jabilt icara*, / *Lau araguioc vere an verala*, / *Martin Bañes Ybarretan il dala*. Lazarragaren testuan badago honen beste oihartzun bat ere: *Icara jabilt / lau laurenoc bildurrez* (A29: 15-16).

<sup>62</sup> *jate*: ‘jake, zaie’; ikusi mendebaldeko beste testu zahar batzuetan ere (*Bertso Bizkaitarrak, Canción Vizcaína*, edo *Egiaren Kanta* (88): *Franzesai bear jate ausi buru*).

Lazarragaren eskuizkribuan, *-te-* morfema iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*); *-de-* morfema, ordea, iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B16: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B16: 147).

<sup>63</sup> *berechat*: ‘beretzat’; euskal testuetan ez dugu beste inon aurkitu [tʃ] txetxekaria destinatiboaren atzizkian. Aldeak alde, gertakari hurbilena Nerbioi arroan eta bizkaieraren beste zenbait tokitan dokumentatzen diren *-rantx(a)* eta *-ganantx(a)* hurbiltze-adlatiboaren aldaeretan aurkitu daiteke. Cf., besteak beste, adibide hauek: *osterancheco* (VJ), *Da ori onintxa biarrin arintxa eran bagindun* (Euskaltzaindia, *Euskal Herriko hizkuntz atlasa: ohiko euskal mintzamoldeen antologia*, [Zollon jasoa](#)); *iruli eguizus gueugananch* (Orozko 1739ko otoitzak), *birtute teologalak*, edo *Jaungoikoaganantxakoak dire iru* (Uriarte, 1866, [Arrigorriagako dotrina](#)).

<sup>64</sup> *irecaçu*: ‘ireki itzazu’.

<sup>65</sup> *orrerean*: ‘hortik, zauden leku horretatik’.

<sup>66</sup> *ceure sierbo onen*: Halako egituretan (“edutezko izenordain + izen + erakusle/artikulu”) artikulua aurreko izenari lotua ageri da kasu gehienetan, eta halaxe eman dugu. Adibide honetan, baina, autoreak esplizituki markatzen du bi elementuen arteko bereizketa. Antzeko adibidea da, izenaren mota ezberdina bada ere, *ceure borondate ori* (AL: 1151v).

<sup>67</sup> *cegaiti dacusun*: ‘ikus dezazun’; irakur bedi *dakutsun*. “Cegaiti + subjuntiboa” egiturak helburuzko perpausa adierazi ohi du Lazarragarenean: *cegaiti obato alcar aditu daigun* (AL: 1147v), *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Beguioc irecaçu guchi baten*, / *eta inca eçaçu orrerean* / *ceure sierbo onen*

ya bici onegaz aspertua,<sup>68</sup>  
minez mila lecutan çulatua,

m.13

cegaiti daquiçun, ceurc<sup>69</sup> ecusita,<sup>70</sup> 85  
ez naxana min бага quexaetan,  
baice<sup>71</sup> justo naxala escaetan.<sup>72</sup>

---

*biocean, / cegaiti dacusun nola dagoan / ya bici onegaz aspertua, minez mila lecutan çulatua, / cegaiti daquiçun, ceurc ecusita, / ez naxana min бага quexaetan* (B3: 79-86).

<sup>68</sup> *aspertua*: ‘nekatua, adorea galdua’; cf. Lcc “cansar, *aspertu*”. Cf. orobat, *OEH*, s.v. *aspertu*: “2. [...] Cansar(se); desanimar(se); aburri(r)(se)”.

<sup>69</sup> *ceurc*: ‘zeuk’, izenordainaren forma zaharrean.

<sup>70</sup> *ecusita*: Hiru tokitan erabaki dugu *-ta* partizipioari lotuta idaztea: *joan cidin floresta bateti aurrera, Clariani bacarric ichita, ceñac, bacarric gueratu çala ecusen orduan, asi çan, negarrez beteric bere beguiac eucala, berva oec esaten* (AL: 1151r), *ceurc ecusita, / ez naxana min бага quexaetan, / baice justo naxala escaetan* (B3: 85-87) eta *Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur eguinda; / belaurico, barriz, çu, ene lind[a]* (B15: 13-15). Partizipioari atxikitako atzizki gisa agertzea berrikuntza bat da, eta XVIII. mendera arte adibide bakanak aurkitzen ditugu euskal testuetan. Horregatik, Lazarraga eskuizkribuan hiru adibide seguru horiek baino ez ditugu halakotzat hartu; gainerakoetan, aldiz, usadio zaharra hartu dugu kontuan eta, ondorioz, [partizipioa + *ta*] segida bereizita idaztea erabaki dugu, haietan guztietan *ta* juntagailu arrunt gisa ulertzeko eragozpenik ez dagoelako, alegia. Eskuizkribuan *-ta* gehienak partizipioari lotuta agertzeak ez du balio erabaki horren kontra, zalantzarik gabe kopula denean ere hala idazten baitu Lazarragak; ikusi hau, adibidez, eskuizkribuan idatzita dagoen moduan: *Silvero eta Silvia, Doristeota Sirena* (AL: 1152r). Cf. *OEH*, s.v. *eta*: “2. (SP, Dv, H). (Precedido de participio o de radical verbal). Generalmente tiene un sentido temporal. A menudo también con valor condicional: *Halakoa utzi eta, non dukegu berzia?* E 91. *Iainko bat baizen ez izan eta, zergatik hirur aiphatzen dituk?* Lç Ins C 1r. Cuando se emplean las variantes *da* o *ta*, resulta difícil diferenciar este uso de *eta* del uso adverbial del participio con sufijo *-ta* (*izanda, etorrita*, sinónimo del general *izanik, etorririk*) propio de los dialectos meridionales. Cf.: *Mila urte igaro eta ura bere bidean*. RG 60; pero en el ms. A 25: *mila urte igarota*. De hecho, parece seguro que estos participios con sufijo *-ta* se derivaron del uso de *eta* que aquí tratamos. Cf. las expresiones temporales del tipo *egin eta gero, egin eta berehala*, etc.”

<sup>71</sup> *baice*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *baxin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*”.

<sup>72</sup> *justo naxala escaetan*: ‘justoa naizela eskatzeko orduan’.

*justo*: Artikulurik gabeko adjektibo predikatuak arruntak dira XVI. mendeko euskal eremu guztietako testuetan (cf. *çe eyquec maurtuti hoeaneâ, ederr eztanic calean*, RS 36), gaur egun ekialdeko ezaugarritzat baditugu ere. Lazarraga eskuizkribuak ere baditu halakoak: *gazte cirean artean* (A11: 17), *Çu serviceco andi dot deseoa* (A17: 47), *On içango nax* (A26: 137), *cerren çu eder içanagayti* (A27a: 43)... Baditu, nolnahi ere, artikuludunak, txandakatze horretarako patroirik atzeman ez badugu ere: *Oraingaño gaztea ax ta* (A19: 15), *Oy çu ederra içan ez arren* (A27b: 21)...

## m.14

Esque nagoçuna,<sup>73</sup> ene laztana,  
 accorda badeçaçu<sup>74</sup> ucacea,<sup>75</sup>  
 nic bere ucacen dot bicicea.

90

## m.15

Juzgacen badoçu ule onegaz<sup>76</sup>  
 ocitu<sup>77</sup> jatala niri odola,  
 indarsuac ditut virlo ta bola.<sup>78</sup>

<sup>73</sup> *nagoçuna*: ‘nagokizuna’; aditz-formari buruz, ikusi B3: 73.

<sup>74</sup> *acorda badeçaçu*: ‘akordatzen baduzu, erabakitzen baduzu’.

<sup>75</sup> *ucacea*: *acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-*tzea* eta -*tzen*) onartzen ditu eskuizkribuan. Bost bider aurkitu dugu osagarria -*tzen* forman: *acordadu eben joaten* (AL: 1146r), *acordadu eben arçai aberaspatequin jarten arçaiçat* (AL: 1146v), *acordadu eben aen esque joaten* (AL: 1151r, AL: 1151v), *acordadu dot erietan* (B16: 118). Bi bider erabili du osagarria -*tzea* forman: *acordaetan ez dodala / ain laster ezconquetea* (A24: 173-174), *acorda badeçaçu ucacea* (B3: 89).

<sup>76</sup> *ule onegaz*: ‘ile urdin honegaz, ile urdin honegatik, zahartzaroaren adierazgarri den ilearengatik’; ile urdinaz ariko litzateke, zaharraren ile urdinaz alegia, zaharra baita odola hozten zaiona (eta birlo eta bolak indargabetu). Ikusi, adibidez, XX. mendeko poema batean (S. Erramouspe, 1900-1939):

Aldiz chaharra zuhurki dago herioari begira,  
 Urthe berriko ichtant guziek hurbiltzen dute hobira,  
 Odola zaiko zainetan hoztu, haren indarrak jua dira,  
 Zuhaitz idorra ez da ostatzen jinik ere primadera!

Zaharraren adiera honek badu zentzua, kontuan hartzen bada berari gertaturikoa kontatzen ari dena aita maitemindua dela. Gainera literatura-topikoa da maitale zaharrarena (*senex amans*).

Beste era batean ere uler liteke, agian: ‘Itxura eskas honegaz, itxura eskas honegatik’; horren antzeko erabilera aurkitu dugu 1604-1618ko gaztelaniazko testu batean (Fray Prudencio de Sandoval, *Historia de la vida y hechos del Emperador Carlos V*): “Nota mucho Galeazo Capella, para llorar las grandes miserias de Milán, que habían venido los dos mil españoles tan pobres, que unos andaban sin zapatos, otros sin camisas, otros medio desnudos, y tan consumidos y de ruin color, que parecían estar pasados de hambre; tanto, que los llamaban los pobres; que con este pelo los envía de ordinario España, y fuera salen los que todos saben”.

<sup>77</sup> *ocitu*: ‘hoztu’; cf. *OEH*, s.v. *oztu*: “La forma *otzitu* es la predominante en los textos vizcaínos ya desde *RS* (aunque tbn. se encuentra *oztu*, por ej. en Moguel y fray Bartolomé); tbn. la emplean, ya en el s. XX, algunos otros autores no vizcaínos, como Orixe, Lizardi o Etxaide. Leizarraga y Oihenart usan la forma de sust. vbal. *hotze*. En *DFrec* hay 12 ejs. de (*h*)*oztu* y 2 de *otzitu*”. Landuccirenean bi formak datoz: “enfriarse, *osçtu*” eta “entibiarse, *osçytu*”. Lazarragaren eskuizkribuan *mocitu* (A19: 54) eta *mocietan* (A25: 12) ere aurkitu ditugu.

<sup>78</sup> *virlo ta bola*: ‘birla eta bola’, hots, bola-jokoan erabiltzen diren elementu biak, jo behar den birla eta hura jotzeko jaurtitzen den bola. Uste dugu gizonezkoaren zakila (*virlo*) eta barrabilak (*bola*) adierazteko erabili dela hemen, zaharra izan arren, eta, zaharrek izaten duten bezala, ilea urdin eta odola

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Testu nagusiaren eskuinetara idatzita daude lehenengo hiru ahapaldiak. Gainetik hiru marra eginez ezabatu direla dirudi. Bi zenbaketa ditu, tinta desberdinez idatziak: 47, 48, 49 batetik, eta 51, 52, 53 bestetik. Lehenengo zenbaketa (47, 48, 49) marra batez ezabatuta dago, baina gero ere, 1154r orrialdean, eta, ondoren, 1153v orrialdean, zenbaketa biek jarraitzen dute, hala gaiarengatik nola ahapaldi motarengatik loturik diren bertso-lerroetan. Guk eskuineko zenbaketa hautatu dugu, tatxatu gabea. Musikarekin kantatu beharreko ahapaldietan, dagoen zenbaketa bakarra (*m.1, m.2, m.3...*) utzi dugu (*m.5*-en kasuan, bazen 68 ere). **3** Lerro osoa dago zuzenketaz josita. Ia ziur ez direla kopiatzean eginiko zuzenketak, lehenengo idatzialdiko zalantzak baino. Azken hitzarena da esanguratsuen: *salduco* idatzi eta ezabatu du lehenengo, gero *serbi-* idatzi eta ezabatu du, eta azkenik *benciduco* geratu da testuan. || eztau] *-u* geroago tartekatua, lehenago *ezta* idatzi baitu. || musicoac] *musicagat-* idazten hasi bide da lehenago, eta gero *-oac* idatzi du *-agat*-en gainean. || inor] *-r* zerbaiten gainean idatzita dago. **5** enlazadu] beste zerbait (*alc-*) idazten hasi da lehenago. **8** jaio] beste zerbait (*sei*) idazten hasi da lehenago. **1154r** Orrialdearen eskuineko alboan idatzita daude ondoko hamar ahapaldi hauek (54-63), eta orri-barrenean hamaikagarrena (64). Ezkerreko zenbakiak tatxatuta daude. Ahapaldiak eurak ere marra banaz ezabatu ditu norbaitek. **17** ezarren] *ezarren nog* hasi da idazten, baina *nog* ezabatu eta gainerakoa idatzi du. || badogu diru] *-g-* bat dago lehenengo *-d-* horren azpian. **20** baçabilç] esk. *baçabilc*. **21** beste bati] *beyn bestebati bati* dago eskuizkribuan, *beyn* eta *bati* ezabatuta. **28** baceducan] lerroartean idatzita dago *-du-*, azpian beste zerbait ezabatu ondoren. **31** erregutu] esk. *erregutu*. **34** nic] esk. *ni*. **1153v** Orriaren barrenean idatzita daude hiru ahapaldi hauek (65, 66, 67), eta 1154r orrialdeko eskuineko albokoaren jarraipena dira. Honen ondorengoa ere (*m.2, m.3, m.4*) 1154r orrialdean dago, ezkerreko alboan; gero, berriro itzultzen da orrialde honetara (*m.5, m.6, m.7, m.8, m.9, m.10*). **49** m.1] esk. 67 ere badakar. **1154r** Orrialdearen ezkerreko alboan idatzita daude hiru ahapaldi hauek (*m.2, m.3* eta *m.4*). **52** m.2] esk. 68 ere badakar. **54** beguit] esk. *bequit*. **60** galçaiten] esk. *galçaite*. **1153v** Orrialdearen ezkerreko alboan idatzita daude *m.5, m.6* eta *m.7* ahapaldiak. Hurrengo hiru ahapaldiak (*m.8, m.9* eta *m.10*), berriz, orrialdearen eskuineko alboan, behetik gora idatzita daude. Ahapaldien ordenari buruz, ikusi aurreko oharrak. **64** çuc ni] lerroartean idatzita dago. Lerro nagusian, ezabatuta: *bada*. **65** çu] lerroartean idatzita dago. **68** alferric] beste zerbaiten gainean idatzita dago *-jc*. **77** Orrialdearen ertza hondatuta dago, eta ez da bi bertso-lerro hauen amaiera irakurtzen. **78** 1154v orrialdearen alboetan idatzita daude hurrengo ahapaldiak (*m.11, m.12, m.13, m.14*,

---

hotz dituen arren, oraindik maitasunerako gai dela adierazteko. *Birlo* formari dagokionez, cf. *OEH*, s.v. *birla*: “(G, AN, L-ain, BN, S; Ht *VocGr*, Lar, Lecl, Arch *VocGr*, Hb y Foix ap. Lh, Dv, H), *birlo* (V-och-m-gip; Lar, Añ), *firla* (B, BN-baig; *VocBN*, H, *VocB*), *girla* (L-sar; SP, H), *pirla* (G, AN-5vill, Sal). Ref.: A (*birla, birlo, firla, pirla*); Satr *VocP* (*firla*). ♦ I. Bolo”.

*m.15*). **1154v** Orrialdearen ezkerreko alboan daude idatzita *m.11*, *m.12* eta *m.13*, goiko aldean *m.14*, eta orrialde-barrean *m.15*. **88** *m.14*.] erdiezabatuta dago -4-, agian *m.15* idazteko. **91** *m.15*] erdiezabatuta dago -5-, agian *m.14* idazteko.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B3 – Bada, nola cantadu ezpadaqui...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago